



## ZER DA GENERO BERDINTASUNA?

NBE Emakumea emakumeen ahalduzko erakunde<sup>1</sup> bat da, eta hari lotutako Emakumearen Genero eta Aurrerakuntzari buruzko Aholkularitza Bereziaren Bulegoaren (OSAGI) arabera, honako hau da genero-berdintasuna: “emakumeek eta gizonek, neskatxek eta mutikoek eskubide, ardura eta aukera berberak izatea”. **Berdintasunak ez du esan nahi gizonak eta emakumeak gauza bera direla, baizik eta**

**eskubideak, ardurak eta aukerak ez daudela jaiotzean suertatutako sexuaren mende; hau da, berdin-berdin hartzen direla kontuan bai emakumeen bai gizonen interesak, beharrak eta lehentasunak<sup>2</sup>. Berdintasuna lortuko bada, **behar-beharrezkoak dira ahalduzko-prozesuak, emakumeek haien bitartez “gauzatzen baitute beren bizitzaren gaineko kontrola, eta haren jabe egiten baitira”<sup>3</sup>.****

<sup>1</sup> NBERi eta haren agentzia espezializatuari buruzko argibide gehiago: <http://www.un.org/es/sections/about-un/funds-programmes-specialized-agencies-and-others/>

<sup>2</sup> UNESCOren adierazleak, garapenerako kulturari buruzkoak: Genero-berdintasuna

<https://es.unesco.org/creativity/sites/creativity/files/digital-library/cdis/Iguldad%20de%20genero.pdf>

<sup>3</sup> *Equal participation of women and men in decision-making processes, with particular emphasis on political participation and leadership*, Aurrekariaren dokumentua (Nazio Batuak, 2005), 6. or.




## ESKUBIDE BERBERAK GAUZATZEKO ESKUBIDEA.

Emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzea, eta desagerraraztea emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak; horra hor NBERen balioak. 1945ean San Frantziskoko gutunak erakunde sorrarazi zuenean, honako hau ezarri zuen haren helburuen artean: “berrestea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko fedea”. Gero, 1948an, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak esplizituki adierazi zuen **oinarrizko eskubideak pertsona guztiengan aplikatzen direla “inongo (...) sexu-bereizketarik gabe”**.

Nahiz eta nazioarteko testu guztiek sexu-diskriminazio mota guztiak arbuiatzen dituzten, hori ez da gauzatu emakumeen errealitatean, haien eskubideak behin eta berriz urratzen baitira emakume jaiotze hutsagatik. **Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Adierazpenak** ezarri zuen, 1967an, emakumeen kontrako diskriminazio-ekintza guztiak giza duintasunaren aurkako eraso direla, eta eskatu egin zien Estatuei neurriak har zitzatela **“ziurtatzeko babes juridiko egoki bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan”**. Urtebete eskas geroago, **emakumeen eskubideei buruzko itun lotesle bat proposatu zen: Emakumearen**

aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko **Konbentzioa (CEDAW)**, Batzar Nagusiak onetsi zuena, 1979an. Sarreran jada aipatzen zuen **emakumeek ez zituztela erabilgarri gizonen eskubide berberak, nahiz eta nazioarteko eta erregioko tresna juridiko anitz egon, genero-berdintasuna aitortzen zutenak**. Konbentzioak zenbait printzipio ezarri zituen, **erreferentzia-esparru direnak Estatuen betebeharrak espezifikoki zehazteko orduan, betiere emakumeen aurkako diskriminazioa desagerrarazteari begira arlo politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen**<sup>4</sup>.

Harrezkeroztik, ugari izan dira genero-berdintasuna lortzeko konpromisoak, nabarmentzeko modukoa izanik **Beijingeko Adierazpena eta Ekintza Plataforma, Emakumeen gaineko Laugarren Mundu Konferentzian onetsia, 1995ean**<sup>5</sup>. **Garapen Iraunkorrerako 5. Helburua (GIH)**, eta haren **9 xedek**, nazioarteko azken konpromisoa dira, hemendik 2030era bitarte **“generoen arteko berdintasuna lortu eta emakume eta neska guztiak ahalduzko”**; horrela, aurrera egingo da 2000tik 2015era bitarte Milurtekoko 3. **Garapen Helburuak (MGH)** ezarritako xedean.



<sup>4</sup> *Emakumearen eskubideak giza eskubideak dira*, Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoaren argitalpena, Nazio Batuak 2014.

<sup>5</sup> Argibide gehiago emakumei buruzko mundu konferentzien gainean, Beijing aurretik eta ondoren- [Linka](#)



## 5GIH: NOLA DESAGERRARAZI GENERO-BERDINTASUNA GALARAZTEN DUTEN OZTOPOAK.

2000etik 2015era bitarte, 3MGHak nazioarteko zein nazioko ahaleginak bultzatu zituen **genero-berdintasun handiagoa lortze aldera, edozein gizarteren garapenean funtsezkoak diren hiru arlotan: (1) hezkuntzarako sarbidea, (2) lan duina eta (3) parte-hartzea bizitza politikoan.**

(1) Eskolatu gabeko neskatxak 52 milioi gutxiago izan ziren 2000etik 2015era bitarte; horrela, neskatxa kopurua 92tik 97ra handitu zen –100 mutileko– lehen hezkuntzan, eta 91tik 97ra bigarren hezkuntzan. Hala eta guztiz ere, **60 milioi neskatxatik gora daude oraindik ere eskolatu gabe munduan**<sup>6</sup>.

(2) Lan ordaindua duten emakumeen proportzioa goraka doa emeki-emeki: 1990ean % 35 zen, eta 2015ean % 41. Nolanahi ere, egoera kaskarragoa dute lanaren arloan: munduan, **emakumeek soldata % 24 txikiagoa jasotzen dute antzeko lanak eginda**<sup>7</sup>.

(3) 1995ean Bejingeko Ekintza Plataforma eratu zenetik, emakume diren ordezkari politikoaren proportzioak gora egin du: % 11 zen 1995ean, eta % 22 2015ean. Hala ere, lider

parlamentarioen (parlamentuko lehendakari) % 16 bakarrik dira emakume.

Benetako berdintasun bat egon dadin, Agenda 2030ak genero-ikuspegia integratzen du GIH guztietan, ez 5.ean bakarrik. **5GIHaren garrantzitsuena da desorekaren sustraietan eragitea proposatzen duela azkenean, hau da, emakumeen aukerak mugatuz berdintasuna galarazten duten oztopoetan:**

- **Indarkeria matxista** (5.2 xedea): Espainian bakarrik, 44 emakume erail zituzten haien bikotekide intimoek 2017an.

*Bikote-harremana duten 5 emakumetik batek jasan zuen indarkeria fisikoa edo sexu-indarkeria bikotekide intimoaren aldetik. Iturria: GIHen txostena 2017.*



- **Haurren ezkontza** (5.3 xedea) gertatzen da oraindik ere 18 urtetik beherako 4 adingabetik 1engan. **Nerabeen haurdunaldia** % 21 beheratu zen 2000tik 2015era bitarte<sup>8</sup>.

- Emakumeek **etxeko lanetan eta besteak zaintzeko lanetan –ordaindu gabe– ematen duten denbora** (5.4 xedea) gizonek emandakoa halako hiru da ia; horren ondorioz, gainera, emakumeek aukera gutxiago dute beste jarduerak batzuetan aritzeko (hezkuntzan edo lan ordainduan).

<sup>6</sup> *Gender and EFA 2000-2015: Achievements and challenges. Education for All Global Monitoring Report 2015, UNESCO.*

<sup>7</sup> Milurtekoko Garapen Helburuen txostena 2015.

<sup>8</sup> Garapen Iraunkorrerako Helburuen txostena 2017.



## NORK ZER EGIN?

### NAZIOARTEKO MAILAN



5.5. xedeak emakumeen osoko parte-hartze eraginkorra bilatzen du bai arlo politikoan bai publikoan. Adibide eredugarria litzateke, Nazio Batuen kide diren estatuentzat, benetako berdintasuna ziurtatzea NBERen beraren barne-egiturari, zeren eta ez baita egon emakume bat ere bertako idazkari nagusi izandakoen artean.

### NAZIO MAILAN



5.3 xedeak emakumeen genitalen mutilazioa desagerrarazi nahi du, arau sozial gisa irauten baitu 40 herrialdetan<sup>9</sup>. Estatu bakoitzak bere barne-araudira eraman behar du nazioarteko gaitzespena. Espainian tipifikatuta eta zigortua dago jada lesioen delitu hori Zigor Kodearen 147tik 150era bitarteko artikuluetan.

### TOKI MAILAN



Gida honetako argazkiaren protagonista Inocenta andrea da, Ixoqi' SA osatzen duten emakumeetako bat. Ezagutu Tecpán herrian, Guatemalan, emakumeak ahalduntzen dituen enpresa sozial horren lana: – Bideoa.


<sup>9</sup> Adam Muñoz, M. D. *La Mutilación genital femenina y sus posibles soluciones desde la perspectiva del derecho internacional privado*. Córdoba, Kordobako Unibertsitatea, Argitalpen-zerbitzua: Instituto Andaluz de la Mujer, 2003, 23. or.

## ETA ZUK, ZER EGIN DEZAKEZU?

*“Tolerantzia eta ulermen falta da nazio, kolore eta sinesmen guztien arteko oztoporik handiena... hezkuntza da erantzuna”, Oodgeroo Noonuccal.*

### Haur eta Lehen Hezkuntza

Adela Turinen “Neskatoen alde” ipuinen bildumak emakumeek familian eta gizartean jokatzeko duten rolen gaineko ikuspegia aldatu nahi du. **Arrosa eta leuna** (+5 urte) da ezagunena. **Bonobo betaurrekodunen egiazko historia** (+5 urte), baita haren irudiak ere, ziur gustagarriak izango direla Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen mailetan! Helduagoek antzeztu egin dezakete ipuin horietako bat, eta edukia komentatu. Lehen Hezkuntzan genero-indarkeria landu nahi baduzu, primerakoa duzu [bideo hau](#).



### Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

Rol-jokoak! 5eko taldetan banatuta, familia (aita/ama, alaba/semea, amona...) edo bulego bateko (zuzendaria, idazkaria...) eszena bat antzeztuko dute ikasleek. Bukatutakoan, rolen gaineko gogoeta egin: nork egiten ditu etxeko lanak?, bada lanbiderik gehiago “gizonezkoenak” eta beste batzuk gehiago “emakumezkoenak” direnak? Komentatu [lanbideen estereotipoei buruzko bideo hau](#).

Proiektuaren egilea: **FUNDACIÓN FABRE**

Laguntzailea: **Universidad de Navarra**  
Instituto de Derechos Humanos

Finantzatzailea: **Nafarroako Gobernua** **Gobierno de Navarra**